

# EUSTAT - BJAko aldagai nagusien laburpena

## BALORAZIOA

BJAko datuek atzerakada bat erakusten dute du lan merkatuaren eboluzioan, okupazioaren %1eko jaitsiera batekin azken hiru hilabeteetan. Okupazioaren erorketa honek langabeziaren igoera dakar, 5.000 pertsonatan hazi da, eta langabezia tasa %11,5ean kokatu da, aurreko hilean baino puntu erdi bat altuagoa. Zerbitzuen sektoreak azaltzen du, hein handi batean, okupazioaren jaitsiera, 12.000 pertsona galtzen baititu, %1,8ko beherakada. Zorionez industria sektoreak mantentzea lortu du, azken hiruhilekoan landun kopurua mantendu duen sektore bakarra izanik, 3.200 landun gehiago edukitzea lortu du, %1,6 gehiago. Eraikuntzak 700 lanpostu galdu ditu eta lehen sektoreak 300.

Okupazioaren jaitsiera 45 urte azpikoen artean kontzentratu da, 35 eta 44 urtekoen artean bereziki. 54 urtez gairikoen artean okupazioaren hazkunde bat erregistratu da. Bizkaia izan da okupazioaren beherakada handiena pairatu duen lurraldea, %1,57ko erorketa; Gipuzkoan jaitsiera %0,39koa da eta Araban %0,14koa. Nahiz eta Araba izan okupazioaren jaitsiera apalena izan duena, errealitate hori ez da langabetuen eboluzioan islatzen, langabetu kopuruaren igoera handiena izan baitu, %4,4koa; Bizkaian ere langabetuen hazkundera antzekoa da, %4,39koa; Gipuzkoan apalagoa da, %3,7koa.

Bizkaia da egoera okerrenean aurkitzen den lurraldea, enplegu tasa baxuena baitu eta langabezia tasa altuena. Gipuzkoan, ordea, enplegu tasa altuena erregistratzen da eta langabezia tasa baxuena. Arabak langabezia tasa altua du, baina enplegu tasa altu batekin konpentsatzen du.

## DATU OROKORRAK

Hiruhileko honetan EAEko enplegu tasa %66,95 izan da, hau da, %70,06 gizonezkoen artean eta %63,82 emakumezkoen artean, sexuen arteko diferentzia 6,2 puntukoa delarik. Hiruhileko honen amaieran 923.200 enplegatu zeuden, 483.600 gizonezko eta 439.600 emakumezko. Langabezia tasa, aldiz, %10,98 izan da, txikiagoa gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino (%10,96 gizonezkoetan eta %11,03 emakumezkoetan, hau da, 0,1 puntuko aldea). Hiruhilekoaren amaieran 113.900 langabetu ziren, 59.500 gizonezko eta 54.500 emakumezko.

Lurralde historikoka, enplegu tasa baxuena Bizkaia du (%65,84) eta altuena, aldiz, Gipuzkoak (%68,73), bien arteko diferentzia 2,9 puntukoa izanik. Hiruhilekoaren amaieran 138.800 enplegatu dira Araban, 476.300 Bizkaian eta 308.100 Gipuzkoan. Langabezia tasa dela eta, Bizkaia da tasa altuena duen lurraldea (%12,19) eta Gipuzkoa, berriz, baxuena duena (%8,79), bien arteko aldea 3,4 puntukoa da. Araban 18.200 langabetu zeuden, Bizkaian 66.100 eta amaitzeko, 29.700 Gipuzkoan.

Jarudera sektoreen arabera, pertsona enplegatuei dagokienez, lehen sektorea da pisu gutxien duena, hau da, bertan 11.000 enplegatu daude, okupatu guztien %1,19, hain zuzen. Pisu gehien duen sektorea, aldiz, zerbitzuen sektorea da, okupatuaren %72,28%, bertan 667.300 enplegatu dira. Bestalde, industria sektorean 197.500 pertsona enplegatzen dira eta eraikuntza sektorean 47.400.

Adin tartearen arabera, enplegu tasa altuena 35-44 urte arteko adin tarteari dagokio (%81,83), 284.200 enplegatu, eta enplegu tasa txikiena, aldiz, 16-24 urte arteko adin tarteari dagokio (%20,71), 34.600 enplegatu. Langabezia tasari dagokionez tasa txikiena erakusten duen adin tartearen 45-54 urte artekoena da, %9,21 tasa (27.300 langabetu), aldiz, langabezia tasa altuena duen adin tartearen, berriz, 16-24 urte artekoena da, %19,16ko tasa (8.200 langabetu).

## HIRUHILEROKO BILAKAERA

Hiruhileko honetan okupazioa hazi egin da 13.800 pertsonetan, %1,5. Emakumezkoen artean 8.800 pertsonako igoera izan da (%2) eta gizonezkoen artean, berriz, 5.100 pertsonako igoera (%1,1). Langabezia, aldiz, murriztu egin da 3.100 langabetuetan, 2,6%. Emakumezkoen artean jaitsiera 6.800 lagunekoa izan da (%-11,1) gizonekoetan, ordea, 3.800 laguneko igoera izan da (%6,8).

Lurraldean artean langabeziari dagokionez bilakaera hobereana izan duena Gipuzkoa izan da, bertan jaitsiera izan delarik, %3,88ko jaitsiera, hain zuzen. Bilakaera okerrean Arabak izan du, non %3,41 igo den. Okupazioa dela eta, bilakaerarik onena Gipuzkoak izan du, non igoera %1,75 izan da. Bilakaera okerrean, berriz, Arabak izan du non %0,73 igoera izan duen.

Jarduera sektoreen arabera bilakaera hobereana izan duena zerbitzuen sektorea izan da, okupazioa 6.900 pertsonatan hazi da; bilakaera apalena, berriz, eraikuntza sektorea izan du, okupazioa 200 pertsonatan murriztu da bertan.

Adin tartean arabera, okupazioari dagokionez, bilakaera hobereana izan duen adin tartea 16-24 urte artekoa izan da, bertan okupazioa %8,46 hazi delarik (2.700 pertsona gehiago). Bilakaera okerrean 25-34 urte arteko adin tartea izan du, bertan okupazioa %0,61 murriztu da. Langabezia tasari dagokionez, 16-24 urte arteko adin tartea izan da ondoen eboluzionatzen duena, hau da, %14,58ko jaitsiera (1.400 langabetu gutxiago) izan du. Bilakaera apalena izan duen adin tartea 55-64 urte artekoena izan da, bertan langabezia %10,44 hazi baita.

## URTEARTEKO BILAKAERA

Aurreko urteko datuekin alderatuz gero okupazioa hazi egin da 19.300 pertsonatan, %2,1 hain zuzen. Emakumezkoen artean igoera 10.500 lagunekoa izan da (%2,4), gizonezkoen artean, aldiz, igoera 8.800 lagunekoa izan da (%1,9). Hala, langabezia murriztu murriztu egin da 32.200 langabetu, %22. Emakumezkoen artean jaitsiera 13.000 langabetukoa izan da (%-19,3), gizonekoetan, ordea, jaitsiera 19.100 langabetukoa izan da (%-24,3).

Lurraldean, langabeziari dagokionez, bilakaerarik hobereana izan duena Bizkaiak izan du %24,2ko jaitsierarekin. Bilakaera apalena Gipuzkoak izan du, %17,96 murriztu delarik langabezia. Okupazioa dela eta, bilakaera hobereana Arabak izan du, non okupazioa %3,12 hazi den. Bilakaera apalena, berriz, Bizkaiak izan du non %1,62 hazi den.

Sektoreen arabera, okupazioari dagokionez, bilakaera hobereana izan duena industria sektorea izan da non okupazioa 12.500 enplegetan hazi den eta bilakaerarik apalena, berriz, eraikuntza sektorea izan du, enplegu kopurua 400 enplegutik murriztu delarik.

Adin tartean, okupazioari dagokionez, bilakaera hobereana izan duen adin tartea, aurreko urtearekin alderatuz gero, 16-24 urte artekoena izan da, bertan okupazioa %8,46 hazten delarik (2.700 enplegatu gehiago). Bilakaera apalena izan duen adin tartea, aldiz, 25-34 urte artekoena izan da, bertan okupazioa %2,53 murriztu delarik. Urtearteko langabezi tasaren bilakaerari dagokionez, 16-24 urte arteko adin tartea izan da bilakaera hobereana izan duena %44,97ko jaitsiera batekin (6.700 langabetu gutxiago). Bestalde, bilakaera apalena izan duen adin tartea 55-64 urte artekoena izan da, bertan langabezia %3,61 hazi baita.

**DATU OROKORRAK****SEXUAREN ARABERA**

		Tasa	Guztira
Okupazioa	guztira	66,95	923.200
	gizonezkoak	70,06	483.600
	emakumezkoak	63,82	439.600
Langabezia	guztira	10,98	113.900
	gizonezkoak	10,96	59.500
	emakumezkoak	11,03	54.500

**LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA**

		Tasa	Total
Okupazioa	Araba	66,97	138.800
	Bizkaia	65,84	476.300
	Gipuzkoa	68,73	308.100
Langabezia	Araba	11,59	18.200
	Bizkaia	12,19	66.100
	Gipuzkoa	8,79	29.700

**ADIN TARTEAREN ARABERA**

		Tasa	Total
Okupazioa	guztira	66,95	923.200
	16-24 urte	20,71	34.600
	25-34 urte	76,07	161.800
	35-44 urte	81,83	284.200
	45-54 urte	79,38	269.100
	55-64 urte	54,93	164.300
Langabezia	guztira	10,98	113.900
	16-24 urte	19,16	8.200
	25-34 urte	13,57	25.400
	35-44 urte	10,32	32.700
	45-54 urte	9,21	27.300
	55-64 urte	10,90	20.100

**OKUPAZIOA SEKTOREAREN ARABERA**

		Ocupados	%
Datu orokorrak	lehen sektorea	11.000	1,19%
	industria	197.500	21,39%
	eraikuntza	47.400	5,13%
	zerbitzuak	667.300	72,28%

hiruhilabetea	lehen sektorea	saldo	700
		evol %	6,80%
	industria	saldo	6.400
		evol %	3,35%
	eraikuntza	saldo	-200
		evol %	-0,42%
	zerbitzuak	saldo	6.900
		evol %	1,04%
urtea	lehen sektorea	saldo	1.100
		evol %	11,11%
	industria	saldo	12.500
		evol %	6,76%
	eraikuntza	saldo	-400
		evol %	-0,84%
	zerbitzuak	saldo	6.200
		evol %	0,94%

BILAKAERA			Paro	Ocupación	Actividad
<b>GUZTIRA</b>					
hiruhilabetea	saldo		-3.100	13.800	10.700
	evol %		-2,65%	1,52%	1,04%
urtea	saldo		-32.200	19.300	-12.900
	evol %		-22,04%	2,14%	-1,23%
<b>SEXUA</b>					
hiruhilabetea	gizonezkoak	saldo	3.800	5.100	8.900
		evol %	6,82%	1,07%	1,67%
	emakumezkoak	saldo	-6.800	8.800	2.000
		evol %	-11,09%	2,04%	0,41%
urtea	gizonezkoak	saldo	-19.100	8.800	-10.300
		evol %	-24,30%	1,85%	-1,86%
	emakumezkoak	saldo	-13.000	10.500	-2.500
		evol %	-19,26%	2,45%	-0,50%
<b>LURRALDE HISTORIKOA</b>					
hiruhilabetea	Araba	saldo	600	1.000	1.600
		evol %	3,41%	0,73%	1,03%
	Bizkaia	saldo	-2.300	7.600	5.300
		evol %	-3,36%	1,62%	0,99%
	Gipuzkoa	saldo	-1.200	5.300	4.100
		evol %	-3,88%	1,75%	1,23%
urtea	Araba	saldo	-4.600	4.200	-400
		evol %	-20,18%	3,12%	-0,25%
	Bizkaia	saldo	-21.100	7.600	-13.500
		evol %	-24,20%	1,62%	-2,43%
	Gipuzkoa	saldo	-6.500	7.400	900
		evol %	-17,96%	2,46%	0,27%
<b>ADIN TARTEAK</b>					
hiruhilabetea	16-24 urte	saldo	-1.400	2.700	1.300
		evol %	-14,58%	8,46%	3,13%
	25-34 urte	saldo	-2.600	-1.000	-3.600
		evol %	-9,29%	-0,61%	-1,89%
	35-44 urte	saldo	2.300	1.000	3.300
		evol %	7,57%	0,35%	1,05%
	45-54 urte	saldo	-3.000	8.600	5.600
		evol %	-9,90%	3,30%	1,93%
	55-64 urte	saldo	1.900	2.600	4.500
		evol %	10,44%	1,61%	2,50%
urtea	16-24 urte	saldo	-6.700	2.700	-4.000
		evol %	-44,97%	8,46%	-8,55%
	25-34 urte	saldo	-10.700	-4.200	-14.900
		evol %	-29,64%	-2,53%	-7,37%
	35-44 urte	saldo	-9.900	8.600	-1.300
		evol %	-23,24%	3,12%	-0,41%
	45-54 urte	saldo	-6.000	3.600	-2.400
		evol %	-18,02%	1,36%	-0,80%
	55-64 urte	saldo	700	5.800	6.500
		evol %	3,61%	3,66%	3,65%

Iturria: Eustat -BJA. LANBIDErantzako fitxategi zehatza

(\*) Zenbait datu zertxobait aldatzen dira EUSTATEk argitaratutako datuekin alderatuz gero biribildu egin direlako jasotako datuak. Horrezaz gain, aldaketa nabarmen gehiago ere ikus daitezke; horren arrazoia da dokumentu honetan ez daudela jasoak, hiruhileko bakoitzaren datuak argitaratu ondoren, EUSTATEk jasotze irizpideen gainean berriro egindako kalkulua.

Elaborazioa: LANBIDE - Kabinete Teknikoa